



AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK 2012 - ZEBERIOKO UDALA

Iragarrita zegoen bezala, azaroaren 27a eta abenduaren 2aren artean, auzoka zein elkarte desberdinekin 2012ko aurrekontuak prestatzeko bilerak egin ziren. Guztira 9 bilera eta 70 partaide izan ziren gutxi gora behera. Auzo Batzarrak Ermitabarrin, Zubialdeko Plazan eta Olatxun egin ziren. Beste aldetik, gazteekin bilera bi egin ziren (bat 16 urtetik beherakoekin, eta beste bat hortik gorakoekin), eta bilerak egon ziren Austarri Kultur Elkarte, Jubilatuen Elkarte, Guraso Elkarte eta Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteagaz ere bai.

Bilera guztietan aurrekontuez eta udalaren egoera ekonomikoari buruz azalpenak emon eta gero, bertaratu zirenen artean solasaldia ireki egin zen. Solasaldi hauetan herritarrek, bakoitzak bere ikuspegitik, Zeberio zelako gabeziak dauden azaldu zuten, eta proposamenak luzatu egin zituzten. Saiatu gara bileretan azaldu ziren gai guztien sintesia egiten, eta jarraian datorrena lan horren emaitza da. Esan ziren gauza desberdinak islatzen saiatu gara, nahiz eta guztiek adostasun maila berbera ez jaso:

1. **Oinezkoentzat bidea:** Hau da bilera desberdinetan errepikatu den gairik argienetariko bat. Laburbilduz esan liteke herritarrek beharrezkotzat jotzen dutela **oinetzkoentzako bide sarea berreskuratzea**. Errepidearen parean joan litekeen oinezkoentzako bidea ardats nagusia izanik, lehengo auzoen arteko "andabideak" errekuperatu beharko lirateke. Lehenago auzorik auzo joateko erabiltzen ziren bideak garbitzea eta berreskuratzea oso interesgarria izango litzatekeela komentatzen da. Alde batetik bide horiek herriko ondasunen parte direlako eta, beste alde batetik, era horretan oinezkoentzat paseoak emoteko ibilbide eskeintza zabaldu egingo litzatekeelako, bai bertakoentzat zein kanpotik datozenentzat ere. Epe luzerako proiektua izango litzateke, baina bitartean, aldi baterako konponbide batzuk jarri ahal zaskio: "todo uno"-a botata, kaltzadan bezala, tramo bazuk egitea, bideak auzoka mantentzea... Gai honetan ñabardura hauek azaldu ziren:

- Aipatu zen bereiztu egin behar dela bide-gorria bera eta oinezkoentzako bidea. Bidegorriaren beharra ukatu barik, oinezkoentzako bidea merkeagoa izan liteke, eta, beraz, egingarriagoa. Zeberio osoan zehar horrelako bide bat edukitzea helburu bat izan beharko litzatekeela planteatzen da.
- Kasu espezifiko bezala Zautuolakoa azaldu zen. Zatuolatik Plazara oinez joatea ezinezkoa da (oso arriskutsua). Irtenbide posibleak aipatu ziren: Zautuolan errepidea norabide bakarrekoa izatea esate baterako.



- Orokorrean azpimarratu zen Zeberion oso arriskutsua dela errepide bazterretik joatea, ez baitago espaloirik ezta bazterbiderik ere.

Kontuan hartu behar da bide askoren aztarnak galtzen ari direla. Horregatik garrantzitsua da ahalik eta lasterren gurdi-bide, andabide edo galtzaden inbentarioa egitea.

2. Bizikletaz ibiltzeko **bidegorriaren beharra** azaldu zen ere bai. Honekin lotuta, proposamena egon zen plazan **bizikletentzako "aparkalekua"** ipintzeko. Bai oinezkoentzako biderako zein bidegorria egiteko planteatu zen ea posible izango litzatekeen erreken gainetik "pasarela" bat egitea. Beste aldetik, Entelladoreako kalezada plazarekin lotzeari lehentasuna ematea proposatu zen.
3. **Erreka** bazterrak garbitzea beharrezkotzat jotzen da. Erreka, bere osotasunean, altzez eta bestelako arbolez beterik dago. Egoera honek ez dio mesederik egiten (uholde garaian), eta etxe batzuen inguruak ilun eta ikuspenik gabe gelditzen dira. Errekaren garbiketa egiteko ardura daukanari eskatzea proposatzen da (BFA edo EJri). Aipatu zen uriolen ostean erreka bazterrak aztertu zirela eskoilerak egiteko, baina ez da ezer egin (Olatxutik behera). Ez dago argi noren kompetentzia den, baina erreka plan berria eskatzen du: aisialdirako guneak, presak, bidegorriak...
4. **Argia behar da leku desberdinetan (farolak)**. Gai honetan planteatu zen erabilera ondo neurtu beharko dela, beharrezkoa den denboran baino piztuta ez egoteko. Argia behar den leku hauek aipatu ziren:
 - **Artzubi**: Bidea egin eta gero jartzeko zen. Gainera bertan autobus geltokia dago. Inguru horretako kaminoaren ziurtasun neurriak areagotu egin behar direla aipatu zen ere bai.
 - **Zautuola**: Auzoan orokorrean argi falta dagoela esan zen.
 - **Sestalbotik Olatzarrera** doan harrizko oin-bidean argia falta da. Bide hau egunero erabiltzen dute eta garbiketaz haiek arduratzen dira.
 - **Areiltza**: Luzianoren etxe parean argia falta da.
 - **Elorrebieta**: Errotan ez dago argirik.
5. **Gizarte laguntzak**: Proposamen hau planteatu zen: Datorren urteko aurrekontuetan Zeberioko Udalak gizarte beharrezkoen aurre egiteko diru partida berri bat eratzea.
6. Gai desberdinekin lotuta, **Plan orokorraren** beharra azaltzen da. Behar hau argi ikusten da, eta ikuspegi desberdinak azaldu ziren: plana bere osotasunean egin beharrean partzialki (auzoka) egitearen aukera,



herritarrok planean parte hartzea... Arbilduko egoera aipatu zen ere bai, auzo honek "abandonu" itxura ematen duelako. Zerbait egitea beharrezkoa ikusten da. Gai honekin lotuta, herrian ondare asko galdu egin dela, eta gehiago ez galtzea saihestu egin behar dela planteatzen da. **Jausten ari diren baserrien** kasuan egoerak aztertu eta jabeak konpontzera derrigortu beharko lirakeela planteatzen da. Batzuetan erdi jausita dauden etxe hauetan arratoiak daudela esaten da. Beraz, erortzear dauden etxeak direla eta, dinamizatzeko beharra ikusten da. Beste aldetik, herri bakoitzak bere izaera / ezaugarriak gorde behar ditu, eta eraiki edo konpontzen diren etxeetan, hau kontuan hartu behar dela esaten da, hau da, bertako landa-estiloa mantendu behar dela. Hirigintzako batzordeetara joatera animatu da udaletik, horretarako iragarki-taulan agertzen diren deialdiei adi egon behar delarik.

7. **Autobus geltokietan markesinak** eta espazio egokiak behar direla planteatzen da, kasu batzuetan argia ere beharko delarik. Planteamendu orokorra bada ere, **Arbilduko geltokian** ematen den egoera arriskutsua azpimarratzen da: autobusari itzaroteko ez dago espaziorik, eta jendea errepidean egon behar da. Gainera kotxeak handik arinegi pasatzen dira. **Arkulandan** ere markesina (goranzkoan) behar dela komentatu zen, eta baita zebrabidea gurutzatzeko ere. Honetan kompetentzia nork daukan argitu beharko da.

8. Zenbait **bideen egoera eskasa** aipatu zen:

- Areiltzan auzotik errepidera doan bidea ez dauka kanalizazio egokirik, eta, honen ondorioz, euri asko egiten duenean, Txapelen etxera doaz urak.
- Gorozitutik gora errepidean zuloak daude, eta urtebete baino gehiago daramate konponketaren zain.
- Larrabide baino lehen, ezkerretara, ura jausi egiten da eta izotza egoten da errepidean. Han, antza, kunetak estali egin ziren eta ez dute egiten
- beraien funtzioa. Antza denez, "todo uno"-a bota zen baina urak eraman egiten du.
- Barañaon hormigoizko errepidea dago, eta kamioiek apurtu egin dute.

Bideen gai honen barruan, **baso lanak egiten direnean bideak txarto gelditzen direla aipatzen da**, eta ideia edo proposamen batzuk sortzen dira:

- Errepideetan pisua kontrolatzeko seinaleak jartzea eskatzen da. Azpimarratu egiten da egoera txarrean dauden errepideak ez dituztela auzokideek apurtzen.
- Kamioiak edota beste mota bateko ibilgailuak pasatzen direnean, garbi uztea eskatu da.



- Aurrekoaz aparte, mota desberdinetako komentarioak, galderak eta zalantzak sortu dira: Fiantzak direla eta, esaten da neguan kamioi asko pasatzen direla, eta gerta daitekeela ematea errepidea ondo dagoela, baina gero, bat-batean, kotxe edo furgoneta bat pasatu eta apurtu egiten dira. Ildo horretatik planteatzen da fiantza ordaintzearenak ez duela balio, eta kanonak ordain ditzatela proposatzen da. Beste aldetik, galdetu egin zen ea fidantza nola kontrolatzen den (estereoka?). Basoaren kalitatearen araberrako kanonak ezartzea planteatzen da. Barañaon, antza, indusmakinek (eskabadorek) bidea apurtu dute. Bideak txarto daudela eginda komentatu da (asfaltoz). Esaten da hormigoia berez hobea dela, eta argudiatu egiten da konponketak egitea errazagoa dela. "Volvo" batzuk ibiltzen dira (kamioia eta arrastradora ibilgailu batean) pisu handikoak. Planteatzen da kontrolatu egin beharko litzatekeela makinaren erabilera, gehiegikeriak saihesteko. Kanonak noraino errentagarriak diren planteatu da. Sortutako beste galdera bat hau izan da: Noren ardura da bideen egoera? Jabeena edo basoa ateratzen ari den enpresarena?

Honaino azaldu ditugun gaiak gehien errepikatu zirenak izan ziren. Dena den, beste aipamen asko egon ziren, eta jarraian saiatuko gara gehienak azaltzen:

- Zeberriko **osasan zentroan** alde aurreko **hitzordua eskatzeko aukera** egon beharko litzatekeela planteatu zen. Sistema hau eraginkorragoa dela komentatu zen. Hau azaldu zutenen ikuspegitik, era horretan denbora gutxiago galduko litzateke medikuarengana joan behar izan ezkerro.
- Txaboletan eta egurra tapatzeko **plastikoaren erabileraz arautegia** atera beharko litzatekeela planteatu zen.
- Artzubitik Presaldera doan bideak goiko soroak ur barik utzi dituela. Nola eraman ura?
- Anastasiaren hesieraren egoeraz galdetu zen.
- **Udal basoak:** Egungo egoera aztertzea. Zer egin eta zertarako erabili? Nola mantendu era egokian?
- **Basurde ehiza:** Ehiztariak zakarra uzten dute
- **Langabezia** Zeberion zelakoa den galdetu zen. Auzoetako lan txikiak egiteko langabetuak kontuan hartzea planteatu zen. Ildo honetatik, ahal dala, herriko lanak bertakoei ematea eskatu zen.
- **ADSL:** Zerbitzuaren kalitatea ez da oso ona, eta leku batzuetara heldu ere ez da egiten. Orain arte Ugaotik zetorren linea (4 Km). Wimax dugu eta Sautuolabarrikoa (?). Movistarren adierazpenak: ADSLaren hobekuntza eta 3Gko kobertura lortzea.
- Beste herrietako udalekin batera, Arrigorriagako bidesaria kentzeko eskaera egitea planteatu zen.



- Ugaoko tren geltokian parkinga egotea beharrezkoa izango litzatekeela planteatzen da.
- Auzoen izenen kartelak, autobusaren geltokikoak... egoera txarrean daude eta horien mantenua eskatzen da.
- Auzotarrek euren beharrianak udaletxeari jakinarazteko **udaletxean postontzi bat jartzea** proposatzen da (iradokizunak batzeko).
- Baserri batzuk etxe inguruan kable asko dituztela ikusirik, ezin dira kable horiek lurpetik eraman?
- Turismoa erakartzeko ze asmo dago?
- Arteatik Ugaora pasatzen diren kamioien kopurua handiegitzat jotzen dute batzuk.
- Segurtasuna neguan: auzoetan ezin da jarri gatzaren depositoak gero jendeak etxe inguruan edo eskaileretan botatzeko? Beste batzuk ingurumena zaindu beharra aipatzen dute, eta gatz gehiegi erabiltzea kuestionatzen dute, gero gatz hori errepideetatik errekarara doalako. Gai honekin lotuta, jendea informatzeko proposamena egin da, arrazoizko modu batean erabiltzeko.
- Bidegorri, bide, zein errepide inguruak mantentzeko herbizidak erabiltzea planteatu zen ere bai, udaletxeak Zeberion dauden bide guztien mantenuari ezin diela aurre egin argudiatuz.
- Iturrondoko **aparkalekua** atondu beharra.
- Sautolabarrin lankak gehiago ipini eta dagozenak konpondu beharra.
- **Garraioa**ren egoerari buruz galdetu egin zen, eta orain arte udaletik egindako guztia azaldu egin zen.
- Errepideak Arbildu parean, trafikoari dagokionez, puntu beltza daukala adierazten da. Kotxeak abiadura handiz pasatzen dira, eta ezin da aurreratu. Auzokide batek dagoeneko bi idatzi bidali ditu BFARA. Abiadura gutxitzeko radarra edo badena eskatzen da.
- Leku batzuetan (Arkulanda) zakarrontziak pilatuta daudela, eta itxura eskasa ematen dutela planteatzen da. Lurperatzearen aukera aipatzen da.
- Herrian, edadekoentzat ezer ez dagoela esan da, eta kontuan izan behar da, Zeberion kolektibo kopurutsua osatzen dutela.

Azkenik, aipagarria da zenbat alditan irten den bileretan **auzolana bultzatu beharra**. Bai auzo-bideak berreskuratzeko, zein errekek garbitzeko herritarren partaidetza auzolanaren bitartez oso tresna egoki bezala ikusten da. Auzo batzuetako garbiketa lanak auzolanean egitearen aukera aipatu zen ere bai. Bideaz ere gauza bera aipatu zen: epe luzerako proiektua izango litzateke, baina bitartean, aldi baterako konponbideak bila daitezke ("todo uno"-a botatzea, bideak auzoka mantentzea, bidean zer edo zer aurkituz gero, edo hondatuta daudela ikusiz gero, ahal den neurrian norberak konpontzea edo udalari jakinaraztea...).
